


ezagutzen al duzu Donostia?

Ariztegieta

Igeldomendiko Ibaeta aldean, bizkar zabal baten gainean, jauregi eder eta indartsu bat aurkitzen da: Ariztegieta (edo Aixtita bere ingurukoak deitzen dugun bezala). Etxe honen aurrekaldea zinez ederra da, harlanduz egindako leihoak, balkoi luzea, harmarria erdian: soto edo atari zabala etxean sartzeko eta harlanduz egindako etxe-ertza zabalak. Hauetako bat mugituta dago -bere lekutik aterata- dirudienez, karlistadan liberalek (beltzak ere deituak) Artolatik Arrasainera, karlistei botatako kanoikada batekin eginda. Ariztegietak bere inguru guztia menperatzen du gain honetatik: ezkerretarra, Zugastieder etxea eta Sorginerreka; eskuinera Erauntzeta eta Barrenetxe baserriak; bere aurrekal-



dean Antsoategi. Munoa eta beste hainbat etxe dituelarik.

Etxe honetako Ariztegieta familia oso indartsua izan da. Erregeek, nobleek emandako «*Marques de la Paz*» tituluaren jabe ziren. 1745. urtean Ariztegieta,

«*Gentil-Hombre de boca de su Majestad*» Donostiako Alkate izan zen. Pentsa zein indartsu zen familia hau Simon Bolibarren historian izan den euskaldun-seme haundienaren, ahaideak zirela. Bolibarrek bere testamentuan

dio ondorengorik gabe hilko balitz, Ariztegietarrek zirela bere oinordeko. Mende honen bigarren hamarkadan desagertu zen familia hau etxe honetatik.

JOSU TELLABIDE

**Diru kutxa,
zerrailak
eta giltzak egiten
adituak**

Usandizaga, 16 behea
Miguel Imaz, 6 behea
DONOSTIA

% 27 18 14
% 29 16 81
Faxa: 28 43 84

ADECU

APURTU GABE
ATEAK ZABALDU

ZERRAILAK JARRI

SEGURTASUNEZKO
SARRAIL-MUINAK

GILTZA-MAISUAK
EGITEN DITUGU

GILTZA KOPIAK

ESTEPINES KALEA, 15 BEHEA • PARTE ZAHARRA
TFNOA.: 425694 / FAX.: 429335

**EL
TURISTA**

KIROL ETA
BIDAETARAKO
ARTIKULUAK

LEGAZPI, 6 • Tfnoa.: 42 77 46